

BATZU. STILISTIKA RUSSKOGO JAZYKA. ŽANROVO-KOMMUNIKATIVNYJ ASPEKT STILISTIKI TEKSTA. 1987, “NAUKA”, MOSKVA

A. N. Kozin, zientzia filologikotan doktore eta erredaktore nagusiaren gidaritzapean, gaur egun Sobietar Batasunean estilistikaren alorrean izen gailen eta ezagunak direnak elkartu dira “testuaren estilistikaren alderdi genero-komunikaziozkoak” bezalako gaia sakontzeko: V. N. Vinogradova, T. G. Vinokur, L. I. Eremina, E. A. Ivancikova eta E. F. Petrisceva.

Gaur eguneko estilistikan berria diren eta oraindik oso sakondu gabe dauden gai eta kontzeptuak aztertzen eta lantzen dituzte, hala nola: estilo funtzionala, hizkuntz estiloa eta hizketa-estiloa, erabilera estilistikoa eta testua, adierazpen estilistikoa eta testua, hizkuntz baliabideen munta estilistikoa eta hizketa-egintza jakin batzuren motibazio estilistikoa, hizketaren genero-formak berauen hizkuntz-konposiziozko ezaugarriak eta abar.

Ikerketa burutzeko erabili den materiala **publizistika** deritzonaren alorrekoa da eta funtsean 70. eta 80. urteetan zehar argitara eman diren kazetetatik jasoriko testu informatibo, iruzkinezko eta baloraziozkoak dira. Arreta bereziaz aztertzen dira kazetetan elkarriketa-erara agertu diren-testuak.

Lehendabiziko eta sarrerako lanak “Estilistika garaikidearen gaur eguneko arazoak” izenburupean Hizkuntzaren erabilera estilistikaren oinarrizko objektu gisa aztertzen du hizkuntz erabileraren erregularitasun funtzionalak eta komunikatiboak sakontzetik hasiz, erabilera estilistikoa eta testua ukituz, ondoren adierazi estilistikoa eta testuaren gaia landuz amaitzeko.

Bigarren kapituluak, “Hizketaren diferentziatze funtzional eta estilistikoa” izenburupean azterketa luze bat burutzen da gai honen alderdi desberdinak sakonduz eta alderatuz.

Liburuaren bigarren atalak “Diskurtsuaren generozko formen estilistika” aztertzen du eta lehen kapituluak “Kazeta-publizistikaren diskurtsuaren genero-formak” gaia lantzen da, tipologia bat ezartzen saiatuz. Sarrera luze baten ondoren hiru eratako testuen azterketa burutzen du: informatibo “hutsak” diren testuen azterketa, iruzkinezko testuen azterketa, eta azkenik, baloraziozko testuen azterketa.

Bigarren kapituluak “Artikulu itzulietako testuetan agertzen diren era komunikatiboko esamoldeak” gaia aztertzen du.

Hirugarren kapituluak “Dialogiazioa testu publizistikoa eraikitzeko baliabide gisa” gaia lantzen da eta genero publizistikoen tipologia bat finkatzeko

ahalegina burutzen da; sail berezia eskaintzen zaie “*Literaturnaja Gazeta*”ren orrialdeetan agertu izan diren dialogo-mota desberdinei, diskurtsuaren generoformaren aldetik.

Laugarren kapituluaren “Foiletoiaren konposiziozko eta diskurtsuzko egitura” gaia aztertzen da.

Ikusten denez liburuak bi atal berezi ditu: lehena teorikoa, non estilistikak gaur egun dituen arazo nagusiak ukitzen diren, bere joera funtzional eta komunikatiboan, eta bigarrena: testu osotan hizkuntzak nola funtzionatzen duen ikustera zuzendua. Autoreek garbi utzi nahi dute, berek egindako ahalegina ez dela inondik ere ondorio finko eta itxiak eskaintzen dituen, baizik eta material mugatu bat erabiliz zer nolako ahalbideetara irits litekeen erakusten duen metodo bat urratzea dela gehienbat. Zentzu honetan, aitortu beharra dago, beste inon gutxitan bezala arduratzen direla sobietarrak publizistika-generoaz eta beronen baitan azken bi hamarkadotan gertatzen ari diren aldaketaz eta benetan ereduazko gertatzen dira azterketa disziplinarrekoak burutu ahal izateko honelako hizkuntz estilistikazko azterketa funtzional eta komunikatiboak. Tamalgarria da honelako lanak errusieraz soilik argitaratzea, eta gurea bezalako herrialdeetan hizkuntza hau unibertsitate-mailan ezagutzen dutenak hain gutxi izaki, izan lezaketen adinako eraginik gabe gelditzea ikerketari sobietar hauen aurkikundeak. Zoritxarrez, egoera honen ondorioa da Mendebaldeko ikerketari askok munduaren zilborra, hain zuzen ere, gu bizi garen tokian dagoela uste izatea eta alor guztietako aurrerapenak ingelesaren esparruan burutzen direla sinetsirik egotea. Gehitxo eskatzea ote litzateke hizkuntzalari-tza, filologia, estilistika, traduktologia, semiotika eta abar bezalako gaietan sobietarren eta berauen orbitan ematen diren urratsez jabeturik egoteko hemengo doktore eta ikerketari unibertsitarioei eskatzea?

X. Mendiguren